

Karkara

karkara.eus

20 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2018ko apirilaren 27a · 394. zenbakia

Bullyinga: eskola jazarpena aztergai

Bullyingaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da maiatzaren 2a. Orioko bi ikastetxeetako errealitatea aztertu du KARKARAK.

11

Iritzia

Salatxo urteurrena

20

Argazki galeria

Zaragueta, 40 urte

22

Elkarrizketa

Asier Gozategi

30

Moila Bazterretik

Xabier Etxeberria



IZARRA ELEKTROGAILUAK

Selekzioa TOP 21

ORDAINDU
21 hilabetetan
INTERESKABE
KOMODARNO
TANNO



Oraindik RAINEN
SUHALDEHO
ALTZARIAK

Plaza Endara, 46 - Telf: 943 83 38 81
20810 Orio (Zipuzkoa)

JARRI PUBLIZITATEA
KARKARAN
688859682

Fontana iturgintza

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalazio
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujotzia kendu eta duxa jarri
- Gremioen koordinazioa, dekorazioak
- Zeru erradiazioak

www.fontaneria-fontana.com

Fontana iturgintza
Plaza Endara n°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hoemall.es
661 262 828

Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitateak

Kale Nagusia,2 -behea (20810 Orio)
Telf./Fax: 943 134 717
Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teiltatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
kompromisorik gabe

Ander Zinkomegi
667 740 279

garay
manufacture

SUKALDEAK
PROIEKTUAK
ERREFORMAK

www.garay.eus

Olabildea aldea 1
(Errotaberri Industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09

Sagasti
LEIHOAK

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 53 71 30
sagasti@sagastileihoak.com
Armentakale kalea, 63
20810 Orio

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa - Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

394

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orío
943 83 15 27karkara@karkara.com
www.karkara.eus**Editorea**Karkara taldea
kultur elkarte**Erredaktore burua**

Ainara Lasa

Erredakzio taldeaJon Agirresarobe
Oriñtza Aiestaran
Olatz Artola
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileakAnder Etxebeste
Xabier Etxeberria
Iñaki Iturain
Salatxo Abesbatza
Rosa Velez
Jabier Zabaleta**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakEndika Ruiz (Orío)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berriemana daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala Orioko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Lukene Lizasori jarri dio puntua Leire Vitoriak: *Balea elkartetik dator notizia*. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

LUKENE LIZASO (DOINUA: PASAIAKO PLAZATIK)**1**

Balea elkartetik dator notizia, emakumea omen du bertan agintia. Junta kideak sartu ta arazo euria, ixtea izan zen bai lehen erabakia.

2

Tradizio ta ohiturak daude aldatzeko, eta izan dadila pauso aurreneko. Taldeaz bat eginda hor gaude TOPEko, ea bihurtzen ez den elkarte urpeko.

**Hurrengo bertsolaria:**

Ainhoa Mateos

Puntua:Azken aldian
Orío bertsozale**EUSKO JAURLARITZA****GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Txu-Txu trenaren etorkizuna

2009, 2010 eta 2011 urteetako uda sasoiaren eta Orioko merkataritza bultzatzeko helburuarekin, oinezkoak herritik hondartzara gerturatzeke alokatzen zen Txu-txu trena.

Iritzi guztien arabera zerbitzu bikaina eta harrera ona zuenez 2012an Orioko Udal Gobernuak, herrian turismoa eta merkataritza sustatzeko, Txu-Txu trena erosi zuen.

Horretarako, 2011n Arkupe elkar-tearen izenean Eusko Jaurlaritzari egin zitzaion diru-laguntza eskaerak aurrera egin zuen eta 58.050 euro jaso ziren; hau da, trenak balio zuenaren %76.

Zergatik eta zertarako trena erosi? Hiru urte pasatu ziren alokairuan urtero 25.000 euro inguru ordainduz eta urte gutxitarako balia garria dena, epe luzerako jarduna izatea pentsatzen bada gastua patrimonializatu egin behar da.

Zertarako galderari erantzunez, ekonomikoki ez hain garestia izateko, zerbitzuari gertutik jarraipena egiteko, herritarren eskura bi gidari lanpostu jartzeko...

Azken urteetako likidazioak jaso ondoren Orain taldeak balorazio ekonomiko eta orokor bat egiteko unea heldu dela uste du.

Jakiteko oraingo gestioarekin jarraitu behar den, kontzesio eredu bat erabili edo alokairu sistemara bueltatu, Txu-Txu trena martxan egon den bederatzi urteetako likidazio ekonomikoak eskatzen ditugu eta baita teknikari arduradunaren txostena eta bere iritzia, antzeko trenak dituzten herrien jokabideetan arrazoituta. • **Orain taldea**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Haserrea

Eskutitz honen bitartez, Orioko Udaleko Obra eta Zerbitzuetako batzordeak, pasa den apirilaren 12an hartutako erabaki okerra salatu nahi du. Herriko plaza, asteburuetan, berriz ere, ibilgailuei irekitzea erabaki baitzuen.

Arkupe merkataria, ostalari eta profesionalen elkar-teak Udalari eskaera egin zion asteburuetan autoen zirkulazioa baimentzeko.

Batzordeak, eskaera hori aztertu, eta EAJ eta Orain alderdien aldeko botoarekin, onartu egin zuen zirkulazioa baimentzea. PSE-EE abstentitu egin zen botazioan eta EH Bilduk aurkako botoa eman zuen.

Herritar talde bat 2011ean biltzen hasi ginen ingurumeneko gaiak lantzeko. Topagune berdea deitu genion talde harri. Eta 2011 eta 2012 urteetan herriko mugikortasunari buruzko analisi sakona egin genuen. Horrela, hobetu beharrekoen zerrenda osatu genuen. Gainera, lehen maila ezberdinak jarri genizkien zerrendako aldaketa/ proposamen bakoitzari. Lehen mailan

hazteko bat izan zen asteburu larunbat goizeko 10:00etatik hasi eta igandeko 20:00ak arte plaza autoei ixtea eta oinezkoiei irekitzea.

Urte morderoxka batean, asteburu, oinezkoena izan da plaza. Herritarrek hura erabiltzeko aukera izan dute ordu batzuetan.

Eta apirilaren 12ko batzordean erabakitakoak izugarriko haserrea sortu digu:

- Topagune berdeko kideen iritziaz ez dutelako galdera egin.
- Hainbat herritarren iritzia ez dutelako kontutan izan.
- Arkupekoek aurkeztutako arrazoiak ez ditugulako egokiak ikusten.
- Herriko plaza oinezkotzeak herritarren bizi-kalitatea hobetzeko balio duelako.

Horrela bada, udalari zera eskatu nahi diogu, horrelako erabaki bat hartzerakoan, alde ezberdinen iritzia jasotzea. Ikuspuntu aurrerakoiagoa izatea mugikortasunari dagokionez. Herri guztietan oinezkoentzako kale eta gunek gehitzen ari diren artean, atzerapauso galanta baita hartutako erabakia. Azkenik, plaza oinezkoentzat jartzeari buruzko herri galdeketa bat egitea proposatu nahi genioke, hori izango baita herritarren iritzia jasotzeko aukerarik zuzen eta egokiena.

• **Topagune Berdea.**

Orion zergatik ez?

Eman begiratu bat Euskal Herriko alderdi guztien programei eta ikusi zer dioten mugikortasunari buruz; guzti-guztiak ematen diote garrantzia oinezkoentzako gunek berreskuratzeari.

Bestalde, inguruari erreparatuz gero, nabarmen ikusten da azken hamarkada honetan ahalegin handia egin dela ia herri guztietan oinez-

koentzako guneak berreskuratzeko.

Begiratu, azkenik, Orioko alderdi guztien lehen oniritzia jaso duen Herri Antolamenduko Plan Orokorren dokumentuari, eta bertan honela dio mugikortasunari buruzko irizpideak jasotzerakoan: *Lehenengo irizpidea oinezkoen eta bidegorrien sarea hiritar eremu guztian sendotzea eta zabaltzea da. Oriok baditu horietako sareak. Hori horrela izanik, sare horiek osatzea eta zabaltzea da helburua neurri handi batean, herri guztian behar duen jarraipena izan dezan.*

EH Bildu konbentzituta dago horretaz eta esandakoa egiten saiatzen gara, koherentziaz erabakiak herri-tarrekin konpartituz.

Asteburutan plaza ibilgailuentzat itxi/ez itxi eztabaida horretan, gure proposamena hau izan zen: udan ere larunbat goizetan irekita uztea plaza autoen zirkulaziorako eta larunbat arratsaldetik igandera arte ixtea.

• **Orioko EH Bildu.**

Akatsak zuzentzen

Martxoaren 23an banatutako KARKARAN akatsa zegoen gutunen atalean. *Okerrago ezin: zer gertatzen da lurrazpiko edukiontziekin?* izenburuko gutunaren sinadura okerra da: Orioko EH Bilduk idatzi zuen gutuna, ez Lur-Alkartasuna Kooperatibako zuzendaritzak. Barkatu eragozpenak.

Orion Biziren deialdia

Agian gure kooperatibari eta gure proposamenari buruz zerbait entzun duzu Orioko BOE etxebizitzak eraikitzeko.

Guri buruz jakin nahi baduzu, gure proposamenari buruz, Salatxo Aretoan maiatzaren 8an, asteartean, 19:00etan jende guztiarentzat irekita egongo den bilera batean parte hartzeko gonbidatzen zaituztegu.

Gure etxebizitzaren proposamena aurkeztuko dugu eta legeak eta kooperatiben munduan aditua den norbait egongo da bertan.

Parte hartzera gonbidatzen zaituztegu eta jakin nahi duzuen galdetu.

Gurekin harremanetan jar zaitezke ondorengo e-posta helbidean: orionbizicooperativa@gmail.com

Maiatzaren 8an ikusiko gara.

• **Orion Bizi Kooperatiba.**

HILDAKOAK

- Arantzazu Iburguren Iburguren, Orion, martxoaren 24an. 83 urte.
- Juan Jose Loidi Iruretagoiena, Orion, martxoaren 26an. 88 urte.
- Sebastiana Aduriz Etxeberría, Orion, martxoaren 30ean. 96 urte.
- Vicente Gomez Zumel, Orion, martxoaren 30ean. 87 urte.
- Anttoni Murua Iñarra, Orion, apirilaren 3an. 91 urte.
- Gregoria Salsamendi Gz. de Txabarri, Orion, apirilaren 5ean. 94 urte.
- Migel Olasagasti Arruti, Orion, apirilaren 19an. 68 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Roberto Jabier Maciejewski eta Analia Teresa Torres, apirilaren 13an.
- Tania Otegi Legorburu eta Ibai Bera-saluzte Chico, apirilaren 14ean.
- Oihane Garmendia Bergaretxe eta Aitor Zubillaga Zelaia, martxoaren 10ean.

JAIOTAKOAK

- Martin Puerta Velasco, apirilaren 13an.
- Amane Hernandez Urkizu, martxoaren 19an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Bilakaera ontzia, poparean

“Diziplina guztietako eragileek bultzatzen dute errealitatearen transformazioa. Oteizaren arteak eraldaketa hori zuen helburu.”



Jorge Oteiza Enbil. Iragan apirilaren 9an 15 urte bete ziren XX.mendeko euskal herritar eskultorerik garrantzitsuenetako bat hil zela. Oriotarra esperimentazioarekin eta arteak gizartea eraldatzeko duen ahalmenearekin erabat konprometitutako sortzaile eta teorilaria izan zen.

Ernst Gonbrich historiagile britainiarrak zioen ez dela artea existitzen, artistak eta gizarte eragileak baizik. A ze arrazoa: diziplina anitzeko eragileek bultzatzen dute errealitatearen transformazioa.

Hilabete honetan eraldaketa horren lekuko izan gara nolabait: bertso-saioretan, plaza-gizonei emakumeen ahotsa eta errimak gailendu zaizkie gurean. Sormenaren bidetik, Aiako eta Orioko haurren amets kaxa astero irekitzen laguntzen duten ipuin kontalariek ere zeresana eman dute. Helduen ilusia eta grina borborka ipini ditu Akelarrek ekainean eskainiko duen emanaldiak; batek baino gehiagok sarrera poltsikoratzeko komeriak izan ditu...

Bilakaera sozial horrekin jarraituz, aiar eta oriotar ugari prest daude ikasten jarraitzeko; finean, etorkizunerantz kale beretik arraun egiteko. Horren erakusle, apirilean antolatu diren prestakuntza saioretako izenemate oparoak. Gure bi herrietan hilean zehar eskaini eta plazaratu diren enplegu eskaintzen berri emateko garaian, txalotzekoa herritarrek gure sare sozialen bidez erakutsitako inplikazioa, albiste horiek partekatuz. Ez bairik gabe, bilakaera ontzia poparean doa.



Zer iruditzen zaizu asteburuetan plaza trafikoari irekitzea?



“Asteburuetan plaza hilda dago”

Udalak hartutako erabakia zuzena iruditzen zait. Anibarko Portuan bizi naiz eta plaza itxita dagoenean, Txankatik atera behar dut. Tabernari asko lagun ditut eta jendea ez dela herrira sartzen diote; hori beraientzat kaltegarria da. Plaza irekita, jende gehiago ibiliko da. Asteburuetan ez dago inor plaza inguruan, larunbatean akaso mugimendu gehiago egoten da, baina igande arratsaldetik aurrera plaza hutsik dago, hilda. Jendea ez da etortzen erdigunera, eta asteburuetan herri gunea trafikoari irekiz gero, inguruko herrietako bizilagunak etorriko lirateke.

Juan Antonio Gonzalez



“Plaza itxi behar da ekitaldiak daudenean”

Nik nahiago dut plaza trafikoari zabaltzea. Ogi bila edo beste edozein erosketa egiteko asteburuetan herriari buelta osoa eman behar zaio. Festa edo ekitaldiren bat antolatzen denean, ongi iruditzen zait trafikoari ixtea, baina normalean ez da ezer egoten herriko plazan, bi ume baloiarekin jolasten, besterik ez; horretarako badituzte parkeak eta aisia gune ederrak. Astebururo ekintzak egongo balira, ulertuko nuke, baina defektuz ezer ez dagoenean trafikoari bidea ixtea ez zait ondo iruditzen. Neguan ez dago ezer Orion. Oreka bat falta da, antolatzen diren ekitaldi kopurua ez da zabala, hortaz ondo ikusten dut plaza autoei irekitzea. **Mertxe ikutza**



“Atzera pausu galanta da”

Atzera pausu izugarria iruditzen zait. Plaza gune publiko egiteko erabakia hartu zen herriko eragileen artean egindako prozesu baten ostean, eta orain atzera buelta egiteak ez du ez hanka ez buru. Sarri joan ohi naiz kanpora eta beste herrietako plazak asteburuetan oinezko egiten dira; topagune bihurtzen dira. Merkatari eta ostalariek neurri honekin ez dute ezer irabaziko. Nire ustez oker daude, galduta. Lan kultura aldatu behar dute, berri eta zerbitzua modernizatu. Arazoa ez da plaza autoei ixtea; kontsumo joerak aldatu dira, hori da eurentzat kaltegarria, eta ez plaza oinezko egitea.

Joxemari Olasagasti

libe
dietetika
elkadura aholkularitza

943 53 64 94 - 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

eusko gudariak 35 - ORIO
[sarrera Arrantzale kaleak]

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30
IGANDE ETA JAIE EGUNTAN 7:00 - 13:30

Tlf: 943 89 66 67

“Surf taulak egitea ofizioa baino gehiago da niretzat”

Joseba Bernardo

Surf oholgilea

Aginagan duen tailer txikian, eskuz, era tradizionalen egiten ditu surf taulak Josebak. Ane bikotekidearekin batera Orion zabaldu berri duen lokal berezian hartu dugu kafea berarekin.

IÑIGO GAITON

Marea biziengatik bete-bete eginda, errioa dotore ikusten da orain surf denda eta kafetegia den lokal eraberrititik. Joseba Bernardo -Urnieta, 1986- gustura dago oriotarrek egindako harrerarekin: *jendearekin tratuan, Donostian topatzen ez dugun gertutasuna aurkitu dugu hemen.*

Oriotarra duzu familiaren zati bat.

Eraikin hau nire birraitonak eraiki zuen, 1927an. Nire ama, Inma Eizagirre, hemen jaioa da. Aitona Karmelok aroztegia izan zuen etxe azpiko sotoan, guk kafetegiko terraza jarri dugun lekuan. Bere garaian, Elizan zeuden egurrezko banku batzuk berak egin zituen, eta Aste Santuetako prozesioetan ateratzen zuten figura erlijiosoren bat ere bai.

Orion ezizenik ba al du familiak?

Kaxintonekuak.

Aitonarengandik datorrizun artisau sena, surf taulak egitera bideratu duzu.

Duela hamar urte inguru hasi nintzen surfean. Kuriositateak bultza ninduen lehen surf taula egitera, etxeko garajea. Zientziaren eta hidrodinamikaren ikuspuntutik aztertuz gero, surf taulen fabrikazioa prozesu interesgarria da, eta horrek ere erakarri ninduen. Taula bati egindako edozein moldaketa txikik, eragin handia du oholak uretan izango duen errendimenduan. Etengabe ikastera behartzen nauen ofizioa da.

Inoren laguntzarik izan al zenuen ofizioaren oinarriak ikasterako garaian?

Bikotea eta biok Australian izan ginen bidaiatzen, eta bertako batek surf taulak egiteko oinarriko ezagutzak erakusten zituen. Oinarria ikastaro horretan hartu nuen.

Zuretzat lehen taula egin zenuenetik bat saldu artean, denbora asko pasa al zen?

Bi urte inguru.

Eta nolatan erabaki zenuen ofizio gisa hartzea?

Nire taulekin surf egiten zuten lagunak *feedbacka* ona zela ikusi nuen. Merkatuan zeuden taulak ikusita, tokitxo bat egin nezakeela iruditu zitzaidan. Surf ohol klasikoan bertsio gaurkotuak egiten ditut, eta horrekin saiatu naiz hasieratik beste markengandik bereizten.

Surf oholgileok ordu asko pasatzen dituzue bakarrik, hauts artean, gela txikian sartuta. Bakardade hori ondo kudeatzen al duzu?

Beno, hori gure lanaren alde txarretako bat izan daiteke. Nire kasuan, ni naiz nire tailerreko langile bakarra, eta horri esker lan orduak nahieran antola ditzaket. Lantokian itota sentitzen banaiz, olatuak hartzera edo buelta bat ematera ateratzeko askatasuna izan ohi dut, nahi dudanean itzultzeko. Noski, diziplina ere handia behar da, gainean nagusirik edo arduradunik izan gabe lan erritmoa mantentzeko.

Surflariei sarri entzuten zaie ondorengo esaldia: *Ohol honek ez du ezertarako balio, ez dabil atzeraka ere!*

Surflari asko ez dira errealistak, bere burua engainatzen dute; surflari onen ohol berak erabiliz hobeto surf egingo



“Nire surf oholak harribitxiak dira niretzat, mimo handiarekin egiten ditut.”

dutela pentsatzen dute, eta oker galanta da hori.

Artisauok, eskuez gain, bihotzaren zatitxo bat ere erabiltzen duzue eguneroko lanean.

Nire taulak harribitxiak dira niretzat, mimo handienarekin egiten ditut. Zorionez, badira hori baloratzen duten surflariak.

Europako faktoretan milaka surf taula produzitzen dira urtean. Zuk, txikitasunetik, nola egiten diozu aurre konpetentziari?

Taulak nik bakarrik eginez. Beste langile bat kontratatu beharko banu, agian, egiten dudana ez litzateke errentagarria izango.

Patxi Oliden herritarra da Euskal Herriko lehen surf taula-egilea. Bera ezagutzeko aukerarik izan al duzu?

Oraindik ez, ederra litzateke bere tailer zaharra bisitatzeko aukera izatea!

Aurretik sekula surf egin gabe, Patxik taulak egiten asmatu zuen, baina ez zen saltzaile ona izan.

Ni ere ez naiz komertzial ona, baina beno, Interneten bidez saiatzen naiz oihartzun pixka bat izaten.

Oriora iritsi berriak zarete Ane eta biok. Herria erakargarria al da kanpoko begientzat?

Bai. Inguru natural paregabea du: hondartza, ibai ederra, mendia eskura... Gainera, inguruko herri eta hiriekin oso ondo komunikatuta dago. Oriok turismo gehiago erakar dezakeela iruditzen zait.



ZERBITZU BERRIA
Bizikletak jaso eta etxera eramán
Zarautz-Gotia-Orio

943 835 980

Zarautzea Mugitzen gara

Iturriun plaza,5 - 20800 Zarautz

www.2gurpil.com - bigurpil@hotmail.com



688 886 536

24



Autobuses
Lasterak garai bakoitzean
Lasterak garai bakoitzean
Lasterak garai bakoitzean
Lasterak garai bakoitzean
Lasterak garai bakoitzean

Sagar erretza 21-A-20080 Zarautz - Altamirak 21-A-20010 Orio - Tel: 943 751 431

desatascos@desatascoslaster.com - www.desatascoslaster.com

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

Lizaso dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

LUXARBE igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 - 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com

Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak

...



EKILORE GARBIKETAK



626417841
ekilore@outlook.es

ANORGA TXIBI S.L. KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



IGLESIAS SARRAILAGILEAK



Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascorrajerros@yahoo.es
ZOBIO ORIO

24 ORDUKO ZERBITZUA

- ATEAK INKOTZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTERO MALKUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

Salatxok, 25 urte



Salatxo Abesbatza

Udazkenera begira ekitaldi berezi bat antolatzen ari gara. Laster zozketa bat egingo dugu ospakizun horretarako dirua biltzeko

Santa Zezilia egunean, Salatxok 25 urte beteko ditu. Udal musika eskolako orduko, zuzendariaren, Xabier Lizasoren, ekimenez sortu zen, Marina Lertxundi, orduko irakaslearen zuzendaritzapean. Gerroztik Idoia Azurmendi eta Igor Arroyo izan ditu zuzendariak.

Koruko partaide kopurua gorabeheratsua izan bada ere, taldetxo jator bat, hortxe mantendu da, tinko, asteroko bi entseguetan. Oriotar kantu zale asko bildu zen lehenengo dei hartan eta berehala hasi ziren kontzertuan ematen, lehenengoa, herrian bertan. Asko etorri dira ondoren, Euskal Herrian eta atzerrian.

Kontzertuez gain, telebistan ere izanak gara, *Oh happy day* kantu lehiaketan, eta Orioko kantu giroan eragiten, behin eta berriz, festetan eta hainbeste ekitaldietan. 25. urteurrena bereziki ospatu nahi dugu eta horren prestaketan ari gara. Ondorengo egunetan Salamancara bidaia egiteko asmotan gaude, bertako San Marcos elizan kontzertua emateko. Aldi berean, Udalak eskainitako *Baga-Biga-Higa*, Itsaz Ertzeko Euskal Doinuak, grabaketarako Orioko itsas giroko abestiak prestatzen ari gara eta baita, sanpedrotan La Jodedera taldearekin egingo dugun emanaldirako kantuak ikasten.

Festetako ohiko meza nagusian eta Bisigu Egunean aritzeko ere prestatzen ari gara. Eta oraindik erabat borobildu gabe badago ere, udazkenean 25 urte hauetan bidelagun izan ditugun herritar zein elkarteekin ekitaldi oso berezia antolatzen ari gara.

Aipatu nahi dugu laster zozketa bat antolatuko dugula honetarako guztirako dirua biltzeko, eta oriotarren kolaborazioa eskatuko dugu.



Jon Agirresarobe

Zein da hurrengoa?

Arkaizpe, San Juan Elizpe, Gure Etxea, Toki Alai, Alkartetxea, Aldapa, Balea eta Muskuilu harria. Triste samar dabilta. Asteazkenean zehar txokolatadak eta asteburuan beti berdintsuak mahaiak hartuta. Asmatu ditugu hileroko afariak, sozio lagunak, bonoak, arindu ditugu giltza herentzian emateko araudi zorrotzak. Baina ia elkarte guztietan daude plazak salgai, geroz eta gehiago. Guk nahi genduen dio sortzaileek Arkaizpe elkarteari jarritako izen luzeak. Garai batean oparitzen elkarte bateko giltza herentzia jasotzea, gaur marroia da askorentzat. Krisiak izango zuen eragina, baina ez bota errua txanpon faltari: ez gara besteentzat lanean jardutekoak. Urtebetez zuzendaritzan edo bodegako botilak kontatzea odisea da: unibertsitatean kredituak konbalidatzen dituen lana, eszedentzia edo urte sabatikoa hartzeko motiboa. Asko esan nahi du. Eskubideetan fin gabilta, aldarrikatzaile. Betebeharretan pobre, aldarrikatzaile hemen ere. Soziedadeko kulturak ez du lekurik ideal horietan. Hemen *soziedadek* salbatzeko hiru proposamen. Lehena: esker onekoa izan. Platerean arrastoak uztea ez da afaria prestatzen duen lagunari eskerrik asko emateko modurik ederrena. Izan dadila hamar minutuz otorduko protagonista, jarri interesa sukaldariaren lanean. Bigarrenik: *hori ez da horrela egiten* esaldia baztertu behar dugu. Sukaldean zaudetela ez sartu eskurik besteen poltsetan eta kazuelatan, eta ez jarri zalantzan ondokoaren errezeta. Eta garrantzitsuena: baxuago hitz egin.

ederritxia
ANTILLA
justicia

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

ETXeko BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

arkaitz taberna
 ●●● urio ●●●

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

HAIZE BERRI
 taberna-jatetxea-kaletegia

Plater konbinatuak,
 bokafak,
 hamburgeriak,
 raziak,
 eguneko menua...

eta etxera eramateko
 zerbitzua!

943 831 623

Oriko kaledegian, Eribera I

SU KIA
 TABERNA - JATETXEA

On agin eta gero... karta KOPA eta TOPAK

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tel. 943 892 128
 ARRANDEGIAK DE. 1. BARRIOA

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

BODEGAS
Gailur

94380 BARRIOA 4. BARRIOA
 Tel/Fax 943 80 01 08
 www.bodegasgailur.com

Amakur Erribera

ZUDUGARAI

Gelariako Traditziak

Tel. 943 83 03 88
 Fax 943 83 59 52
 hsk@zudugarai.com
 www.bakelozudugarai.com

Portu
ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 26
 943 89 24 35
 20809 AIA-ORIO

Erretetikako zerbitzua
 erretetikako zerbitzua

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

943 578 176
 Hemika enparantzan

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

ITZALA

kartelak jokatzen
 auzoan

tel. 943 83 12 59

BOGA BOGA

Orio
 Hondartza bidea
 943 89 21 31

Menu Bereziak

niko
 taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
 Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27



Bullyinga: ikasleen arteko jazarpenen muturreko adierazpena

Maiatzaren 2a *Bullyingaren Aurkako Nazioarteko Eguna* izango da. Azken urtetan gaiak hezkuntza munduan presentzia handia hartu duenez, Orioko ikastetxeetako bi irakaslerekin elkartu gara, eskola jazarpenaren errealitatea gertuagotik ezagutzeko.



TESTUA: IÑIGO GAITON
ARGAZKIAK: KARKARA

I ngelesetik errentan hartzen ditugun hitz ia gehienek bezala, *bullying* terminoak oraindik berri usaina izan dezake jendartean, bere garaian *footingek* edo beste askok eduki zuten bezala. Funtsean, ordea, *bullying* hitzak ikastetxeetan betidanik eman den fenomeno bati ematen dio adiera: ikasle bera behin eta berriz umilia-tzeari, hain zuzen ere. Ikasleen arteko gatazka eta liskar egoeren adierazpenik muturrekoena da *bullyinga*, euskaraz eskola jazarpena bezala definitu dena.

Bullying terminoak 2004. urtean eman zuen jauzirik nabarmenena plaza publikoan, Hondarribian jazotako muturreko kasu baten ondorioz. Eskola jazarpenak eragindako lehen heriotza kasua izendatu zutenak, gaia kolpetik jarri zuen egunkarietako lerroburuetan. Zigor Saizar Orioko Herri Ikastolako zuzendariaren hitzetan, gertaeraren ondorengo fasea arriskutsua izan zen: *Gaiak hartu zuen dimentsioagatik, denbora tarte batean, ikasleen artean gertaturiko edozein eraso edo borrokari bullying deitzen zitaion. Ezjakintasunak inori mesederik egiten ez zion larritasun egora batera eraman gintuen.*

Gaur egun, ikastetxeetan batik bat, eskola jazarpena pil-pilean dagoen gaia da. Hezkuntza eragileak kontzientziazio lan handia egiten ari dira gaia ikastetxeetatik atera eta interes orokorreko bihurtzeko, eta hein batean,

“Bullying hitzak eskoletan betidanik eman den fenomeno bati ematen dio adiera: ikasle bera behin eta berriz umilia-tzeari.”

“Sarritan zaila izan ohi da adar jotzeak edo liskarrak eta *bullyinga* bereiztea.”



lortu da ikasle askok isilpean pairatzen duen sufrikarioa jendartearen arazo larrien zerrendan sartzea.

Plan eta estrategia espezifikoek bidez, eskoletan aurrerapausoak ematen ari dira, eta estatistiken arabera, bullying kasuen kopurua jaisten ari da. Hau abiapuntu pozgarria izan arren, adituek arretaz jokatzeari aholkatzen dute, oraindik batez beste 10%ekoa baita eskola jazarpena pairatzen duen haur kopurua. Egiteko dagoen lana handia da oraindik.

Zer da bullyinga? Eta zer ez?

Sarritan zaila izan ohi da adar jotzeak edo liskarrak eta bullyinga bereiztea. 2009an Finlandian Kiva metodoa erabiltzen hasi ziren, bullying kasuak era sistematikoan identifikatu eta erremedioa jartzeko.

Orioko ikastolak ere badarabilen plan honen arabera, eraso batek hiru baldintza bete behar ditu bullying gisa identifikatzeko. Zaragueta Herri Eskolan Bizikasi planean oinarritzen dira hezkuntza inklusiboa sustatzeko, eta programa horrek ere bat egiten du Kivaren ikuspegiarekin. *Jazarpenak, erasoak, borondatez egina behar du. Nahita, intentzio txarrarekin. Hori da lehen baldintza. Bigarrena da iraina behin eta berriz errepikatzea, puntuala ez izatea, alegia. Hirugarren baldintza biktima erasotzai-*

lea baino botere egoera ahulagoan egotea da. Bere burua defendatzeko zailtasunak edukitzea, bien artean indar desoreka dagoelako, dio Kristina Olasagasti eskolako ikas-keta buruak. Irainduak askotariko profilak izan ditzake: fisikoki ahula izan daiteke, oso lotsatia, ikasgelan berria izanagatik erasotik babestuko duen lagunik talderik gabea...

Adar jotze puntualak edo jolasean bortizki jardutea, ez dira bullying kontsideratzen; alabaina, jolas edo txantxa jakin batzuk mina eragin dezaketenez, kasu hauetan ere eskua hartzea gomendatzen dute adituek, errespetu eta indarkeria adierazpenak normalizat jo gabe; bullyingari bidea ireki diezaioten aurrekariak izan daitezke.

Isiltasuna eta barrea, erasoaren konplize

Ikasle bat hiru modutan inplikatu daiteke bullying kasu batean: biktima izan daiteke, erasotzailea, edo bere isiltasunarekin (edo barre eginez) erasoaren konplize bihurtzen den testigua. *Kivak azken hauen jokabideari ematen die garrantzia. Lehen, hezitzaileon esku hartzea biktima eta erasotzailearengan zentratzen zen nagusiki. Orain, jazarpenaren aurrean isilik geratzen diren edo barre egiten duten ikasleen jarrera aldatzen saiatzen ari gara: eraso salatuko balute, edo biktima babestu, bullyinga asko mu-*



“Kasu askotan, ikasleak heteroarauak ez jarraitzeagatik izaten dira bullyingaren biktima.”

rriztuko litzateke, azaldu du Zigorrek.

Kristinaren arabera, erasotzaile baten atzean gaizki kudeatutako emozioak egon ohi dira. *Hau da egin behar den galdera: zergatik du haur batek ikaskideari min egiteko beharra? Atentzio falta duelako, autoestimu baxua, bere buruarekiko segurtasun gutxi...* Erasotzaileak, begira dituen ikaskide edo lagunaren aurrean indartsuago edo boteretsuago sentitzeko egin ohi du jazarpena. *Monologo batean, ikusleek barrerik egingo ez balute, oholta gainean dagoenaren jardunak eta funtzioak ez lukete zentzurik izango. Adibide hori jartzen diegu ikasleei, jazarpenen aurrean jarrera aldatu behar dutela azaltzeko.* Argi du hori Zigorrek.

Bullying kasuak Orion

Iaz hiru bullying kasu izan zituzten Orioko Herri Ikastolan. Zigorren arabera, zuhurtziaz aztertu beharreko datua da hau: *Euskal Herriko ikastola askotan aplikatu da Kiva, eta honi esker, %47an murriztu da bullyinga. Lehen eta bigarren hezkuntzan 500 ikasletik gora ditugula kontuan izanez gero, hiru kasuko zifra oso baxua da. Zenbaki horrek, ziurrenik, identifikatu gabeko kasuak egon daitezkeela esaten digu.* Honek agerian uzten du prebentzio lanak duen garrantzia.

Kristinaren hitzetan, iaz ez zuten bullying kasurik detektatu Zaraguetan, baina duela urte batzuk bat bai. *Aurten prebentziozko bost tramite zabaldu ditugu: guraso batek bere seme-alaba jazarpena jasaten ari daitekeela adierazten digunean, hamabost eguneko behaketa proto-*

koloa jartzen dugu martxan, zeinean delegaritzako ikuskari bat ere inplikatzeko den. Behaketa informazio iturri zuzenak diren hezitzaileek ere parte jartzen dute: jangelako begiraleak, eskola kiroleko entrenatzaileak...

Izan ere, eskola jazarpena, gehienetan ikasgelatik kanpo ematen den fenomeno da, Zigorren aburuz: *guraso edo irakasleen presentziarik ez den tarteetan gertatu ohi da: klasetik klaserako tartean, komunerako bueltan, errekreora irteteen...* Hori ekiditeko, *Kivak prestaketa berezia ematen die monitore eta zaintzaileei ere.*

Gizarteko botere harremanen ondorio zuzena

Bullyinga bizi garen gizarte sexistan gertatzen, sustatzen eta legitimatzen diren indarkeriazko harreman sistematikoen ondorio zuzena da, hezkidetzaren ikuspegitik aztertuz gero. Jendartean, estereotipoek markatzen dute pertsonak nolakoa izan behar duen, sozialki onartua izan dadin.

Askotan, ikasleak heteroarauak ez jarraitzeagatik izaten dira irainduak: dagozkien rol maskulino edo femeninoak ez betetzeagatik, talde dominanteko kide ez izateagatik, edertasun-eredu nagusira egokitzen ez den gorputza izateagatik... Zigorrek bat egiten du honekin. *Mutilek kirolarekin eta indartsu agertzearekin zerikusia duten rolak hartzen dituzte txikitatik, eta dantza edo antzerkia gustatuz gero, litekeena da afizio horiek ezkutatzea. Nesken kasuan, gizarteak elikatzen dituen edertasun eta liraintasun idealen barruan mantentzen saiatzen dira.*



Ziberbullyinga

Azken hamabost urtetan, iraultza digitalak aldaketa nabarmenak eragin ditu pertsonen arteko harremanetan. Sakelako mugikor modernoekin, Internetera konektatuta bizi gara 24 orduz, argazki eta bideo txukunak egin ditzakegu, eta sare sozialetan uneoro egiten ari gareneren berri eman. Berrikuntza hauek, noski, eragin zuzena izan dute heziketan; hezkuntzako esparru askotan lagungarri izan diren bezala, bullyingaren kasuan, honen hedapena den fenomeno baten eraketan lagundu dute: ziberbullyinga. Jazarpena aplikazio teknologikoen –*Whatssup, Instagram, Facebook...*– bidez egitea.

Honek, gainera, jazarpena gauzatzen lagun dezakeen beste faktore bat jarri du mahai gainean: anonimatua. Alegia, irain edo mehatxuak ezizen baten atzetik egitea. *Erasoa egiteko gailu hauek erabiltzen dituen ikasleak, normalean, bizitza errealean ez du profil boteretsua izaten. Anonimatua eta interneteko sareak erabiltzen ditu, errealitatean ez dituen boterea eta protagonismoa lortzeko*, argitu du Zigorrek.

Badira gurasoak, beren argazkiez gain, sare sozialetan seme-alaben erretratu asko argitaratzen dituztenak; ez dakite, ordea, eduki hauek noraino iritsi daitezkeen, ez eta nork ikus ditzakeen. Guraso eta hezitzaileak prestatuta al daude ikasleei Internet, sare sozialak eta teknologia berriak behar bezala erabiltzen erakusteko, heldu asko telefonoa eskuan hartutakoan umetzen direnean? *Oharkabean, kasu askotan gurasoek zaletzen dituzte haurrak mugikorretako jolasetara*”, dio Cristinak.

Umeek interneten eskura dituzten joko askoren baloreek eta biolentzia mailak, eragin negatiboa izan dezakete oraindik eraikitze prozesuan egon ohi den nortasunaren garapenean.

Etxeko arauak, beharrezkoak

*Gizartea aldatzearekin batera, familia eredua eraldatu egin da. Arauak beharrezkoak dira familia batean. Etxe guztietan ezberdinak izan arren, existitu egin behar dute, nabarmendu du Cristinak. Eskolan antzeman dute hori. Bullyingari erreferentzia eginez, gurasoei arduraz jokatzea eta errealistak izatea eskatzen die: *Biktimen gurasoek errealistagoak izan ohi dira. Erasotzailearen gurasoei kostatzen zaie gehiago bere seme-alaben jokaera okerrak onartzea. Umeen kontuak direla esanez justifikatzen dira sarri.**

Izan ere, bullying kasu bateko erasotzailea identifikatzean, ez da errua botatzeko edo kriminalizatzeko helburuarekin egiten. *Haur bat erasotzailea dela esaten dugunean, ez da gaizkileztat hartzen, hori seguru izan; momentu horretan jokabide desegokia duela adierazten zaie gurasoei, eta denon artean, hori aldatzen saiatu behar dugula esaten diegu*, argitu du Zigorrek. Gurasoei inplikazioa eskatzen die, etxean bullyingik tokatu ez arren, inguruan gerta daitezkeen kasuak ekiditeko. Bere hitzetan, kontzientzia da garrantzitsua, jarrera pasibotik aktibora pasa behar dute gurasoek; gero, noski, jarrera aldaketa hau seme-alabei ere transmititzeko.

**Orioko
Herri
Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

ROSANA

-ARGAZKI ESTUDIOA-
lorrosanaarraz@gmail.com
tel: 943 83 56 45



**OREKA
FISIOTERAPIA**

Tendinitisak
Lumbalgia
Artrrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
bentona, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37

Aritzaga kalea, 11 behea



Maidier Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

GARMENDIA

IRIHEZIN AGENTZIA - AHOKULARITZA - ASIGURURAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com



Arantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Orio Hertz Klinikak **ORIODONITZA**
zerbitzu berria jartzen du martian.
Prebentzioa ezinbestekoa dela
jakinda, hartu aurre-erorkizunean sar-
dutezkeen arazoak.



**Seguros
Bilbao**

Tel: 943 111 600
688 714 869

Eindaia Eparantzta, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

PERTSIANAK



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

ZUR EDER
muebles tapiceria altzariak

zureder@zureder.com
943 13 49 21
Poligono Ubeagan Nº1, Puerta 8
20810, Aia-Orio

**AUKERA!
50%**
- ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTZOIETAN



urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800 Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

KAIIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arantzale kalea, 1
T 943 04 805
ORIO (Gipuzkoa)

Zorriale kalea, 18
E-Pontalida kalearekin elkarrean
T 943 021 804
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Ertebe kalea, 10
T 943 943 021
ZUMAIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

**Katu
HORIA**
OHARITZA KLINIKA

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
668 80 11 20



URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Rosa Velez

Zaragueta Herri Eskola, 40 urtez euskaraz

Aurtengo ikasturtean ospakizunetan aritu gara Zaragueta Herri Eskolan, izan ere, dagoeneko 40 urte pasa dira gure ikasleak euskara hutsen hezten hasi ginenetik.

Lorpen hura, egun, hutsaren hurrengoa dela iruditzen bazaigu ere, garaiko egoera guztiz ezberdina zen. Ordura arteko irakaskuntza gazteleraz zen, Eusko Jaurlaritzaren sortzear zegoen eta hezkuntza kudeaketa guztia Madriletik egiten zen. Zalantzarik gabe, izugarritzko arrakasta garaiko guraso eta eskolako zuzendaritzak lortu zuena!

Egun, eskolak lorpen hura aitortu eta ospatu nahi izan du momentu honetan. Honengatik, eskola hainbat ekintza desberdin antolatzen ahalegindu da, gurasoen laguntzarekin beti.

Ospakizunei hasiera irailean eman genien. Txupinazoa ekitaldi zabal baten bidez egin zen eta, egun hartatik gaur arte, hilero jardueraren bat edo beste ospatu da, zenbait haur eta gazteentzat – Goazen, Txantxariak, bingoa, Rap-a Imanol Epelderekin...–, eta besteak helduentzat –hitzaldiak, gosari tertulia...–.

Ospakizunez beteriko urte hau amaitzeko, bazkaria egingo genuen joan den apirilaren 21ean.

Ekintza hauek pentsatzeaz eta antolatzeaz gain, lan guztia aurrera ateratzeko ahalegina egin du guraso eta irakaslez osaturiko talde txiki batek. Talde txiki diot ko-

puruz ez direlako asko izan, kontraz, egindako lanari erreparatuz gero, talde handia izan da benetan. Zorionak egindako lanagatik!

Azkenik, plaza hau eskura dudanez, Orioko herriari gogorarazi nahi diot, egun, Zaragueta Herri Eskolak euskalduna izaten jarraitzen duela. Harro gaude gure eskolak 40 urte euskaraz bete dituelako, baina, oraindik harroago gaude euskara zaintzeaz eta euskaraz hezten jarraitzeaz. 40 urtez euskaraz hezten, euskaraz bizitzen.

Orioko herriari gogorarazi nahi diot, egun, Zaragueta Herri Eskolak euskalduna izaten jarraitzen duela. Harro gaude gure eskolak 40 urte euskaraz egin dituelako. 40 urtez euskaraz hezten, euskaraz bizitzen

Sinergia | fisioterapia & berrikuntza

· Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zointzatuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosio, kirurgia osteko birgaitzea, bizkor hezurreko arazoak, arnas gaitzesunak, haur eta heduetan, lesio neurologikokoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioak.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-a, pilates, abdominalekako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.



943 13 05 77
685 71 85 95

Iturri Orioko 1. Baserri - Oriko
sinergiafisioterapia.com

ZARAGUETA HERRI ESKOLA 40. B



URTEURRENA

2017



40 urte euskaraz lanean

40 urte igaro dira dagoeneko Zaragueta eskolak euskaraz ematen hasi zela. Urteurrenaren harira hainbat jarduera egin dituzte ikasturtean zehar, eta ospakizunei herri bazkariarekin eman zioten amaiera joan den apirilaren 21etan. Bazkaria eskolako frontoi estalian egin zuten, festa giro ederrean, eguzkia ere lagun izanda.

Zorionak!



“Musikarekin adierazten dut hitz egiten esaten ez dakidana”

Asier Gozategi

Musikaria

Bertsolaria izateko ametsa zuen, festetan musikarien bafleen azpian aho zabalik egoten zen mutil kozkorrak. Edo futbolaria. Trikitiarekin bada ere, plaza asko pasa ditu Asierrek ia hiru hamarkadatan, futbolari askok baino gol gehiago sartuz: *Nor-nori-nork*, *Nirekin*, *Kalanbreak*... Disko berriaren aitzakiarekin juntatu gara berarekin.

IÑIGO GAITON

Maiatzean argitaratuko duzue disko berria.

Kantu berriekin grabatzen dugun zazpigarrena izango da. 13 abestik osatuko dute bilduma.

Izena aurreratzetik bai?

*Gpuntu*a. Kantu berrien maketak egiterakoan, asko gozatu nuen, gozamina hitza askotan ateratzen zitzaidan hizketaldietan. Hortik atera dugu titulua. Bestalde, gure abizenak ere hor daude: Gozategi, Goikoetxea... kar kar kar!

Urte hauen guztien ostean, zer eskatzen diozu teknikari edo ekoizle bati grabaketak egitean?

Pasioa, beste ezeren aurretik. Teknikari batek musikariaren onena ateratzen jakin behar du, eta horretarako funtsezkoena konfiantza da, lasaitasuna. Studioko giroak, tentsioak, ezin du musikaria kikildu; zoritxarrez, sarritan gertatzen da.

Musikariak abestiarekin esan nahi duena ahalik eta ondoen islatu behar du diskoan teknikariak. Funtsean, abestiaren arima behar bezala dokumentatzea da bere lana.

Eta estudio bati?

Ez naiz exigentea. Pitokeria asko izaten da estudioen eta teknikarien izenekin. Nik, kantua jartzen dut beste ezeren aurretik. Abesti onik ez bada, alperrik dira gaintzeakoak. Gainera, egungo teknologiarekin, grabaketa bikainak egin daitezke baliabide gutxirekin.

Nola bizitzen dituzu grabaketa egunak?

Ondo, gozatu egiten dut. Nire zatiak grabatzeko txanda iritsi zain egoten naiz.

Estudiora kantuen letra eta doinuak itxita eramaten al dituzu?

Doinuak bai, baina letrak... Lehen diskoko *Auskalo* abes-



tia, adibidez, azken momentuan sartu genuen. Musika egina izan arren, letrak falta zitzaizkigun. Estudioko denbora ahitua genuenez, teknikariak kanta hori kanpoan lagatzea erabaki zuen. Goizaldeko ordu txikitari, egoskor jarrita, egun bateko luzapena eskatu nien, bukatuko nuela aginduz. Muturrak jarri zizkidaten estudioko arduradunek, baina hurrengo egunerako osatua nuen letra. Eskerrak egoskorkeria hari!

Kantu batzuk kolpetik konposatzen dira, bulkada batean, eta beste batzuk, urteak behar izaten dituzte gauzatzeko.

Hala da. Lehen diskoko *Norki* fan-dagoa, hamasei urterekin sortu nuen, oso azkar. Aian trikitixa eskolak ematen nituen garai hartan, eta ikasle batek huts egin zuen, ez zen eskolara etorri. Hurrengoa azaldu zain nengoela konposatu nuen kantaren enborra, ordubete eskasean.

Gozategiren letra askok mezu politiko edo konprometitua dituzte, sarritan umore edo probokazio kutsu handiarekin. Arazorik sortu al dizu horrek?

Jose Jimenez Sanchez Rodriguez Aizarnazabalekoa...

Inoiz etorri izan zaizkit aizarnazabaldarrak kontu eske, letra hori dela-eta, beren kontra ezer ote dudana galdezka... Bai zera! Nire amona bertakoa da-eta! Txispazo bat sortu nahi nuen kantan, herri euskaldun bat eta izen-abizen *castellanoak* batera jarritz, eta Aizarnazabal ondo egokitu zitzaidan metrikaz.

Artistak arriskatu egin behar du.

Bai, dudarik gabe. *Nor nori nork* kantarekin ere arriskuak hartu genituen, eta gero begira ze ibilbide egin duen. Arrakasta eta porrota bereizten dituen marra oso fina da.

Kantu batek izan dezakeen ibilbiderik luzeena bihotzetik bihotzera da. Sortzailearen bihotzetik entzulearen bihotzera. Apusturik egin gabe zaila da eragitea, jendearen sentimenduetara iristea.

Kantu bat grabatzeko modukoa den edo ez jakiteko, inori eskatzen al diozu aholkurik?

Urte askotan, nire buruari egindako galdera hau izan dut neurgailua: *kitarraren distorsio hori, gustatuko ote al zaio nire aitari?*

Zuen bigarren diskoa, *Ainhoa*, *Hiru izar* kantarekin hasten da. Nolatan okurritu zitzaizun trikitixa reage erritmoarekin nahastea?

Sorkuntza prozesuan, ez nekien modu konszientean reage kolpeekin ari nintzenik. Beti bezala, intuizio bati segika konposatu nuen pieza. Garai hartan haustailea izan zitekeen, bai, baina aitari gustatu zitzaion! kar kar kar... Trikitixa tradizionala asko gustatu arren, betidanik saiatu naiz instrumentuarekin beste generoetako musika ere egiten, tarteka puristen kritikak jaso arren. Gaztetan, ez nuen aurreitziarik mota guztietako musika entzuteko. Kaxianoren nahiz Julio Iglesiasen musika entzun nezakeen kotxean, gustura, baina herrira sartzerakoan bolumena jaisten nuen, badaezpada ere, jendeak pentsa zezakeenaren beldurrez... kar kar kar

Gozategiren lehen diskotik, abestien letrak asko zaindu dituzue. Lan berrian ere bai?



Asier Gozategi, Iñigo Perona eta Asier Sarasola zuzeneko emanaldi batean.

“Zoratzen nago disko berriaren grabaketetan Orioko musikariek egin duten lanarekin.”



Bai, noski. Abestietako hitz-jolasak altxor txikiak dira niretzat. Errekurtso horiekin saiatzen gara jendearengana iristen eta eragiten.

Askotan izan duzu bertsolarien laguntza.

Duela hogeitaz inguru, Arkaitz Estiballes bertsolaria-rekin kantu bat egiteko tratutan genbiltzan. Bota nion: *ados, baina letra txar bat egin behar didak*. Berak gogor-razazi zidan esaldia duela gutxi.

Bi genero dira, kantua bat, bertsoa bestea.

Hori da. Bertsolaritzan arauak dituzte. Kantuak sortzean ez, metrika eta errima aldetik askatasun handiagoa dugu. Musikariok, nire ustez, esaldi amaieretan errimak sortzen itsutu gara sarri, eta akatsa iruditzen zait. Nik askotan egiten dut bekatu ariketa horretan, eta aldatzen saiatzen ari naiz.

Musikak ba al du funtzio terapeutikorik zuretzat?

Bai, dudarik gabe. Abenduan, San Nikolas bezperan, etxera joan eta soinua jotzeari ekin nion. Disko berrian fandango on bat eduki nahi nuen. Hor sortu nuen diskaoberrian sartu dugun fandangoa, aitaren presentzia, ondoan banu bezala, barru-barruan sentituz. Malkotan. Askotan, musikarekin ateratzen dut barrutik hitz egiten esaten ez dakidana.

Sorkuntza prozesuan, gozatu egiten duzu edo sufritu?

Normalean, gozatu.

Spotify eta halako plataforma digitalekin, musikariok

irabazi edo galdu egin duzue?

Irabazi egin dugula esango nuke: jendeak gehiago entzuten du gure musika. Orain, zuzenekoak bihurtu dira gure diru iturri nagusia.

Duela urte batzuetatik, Orioko jendea dabilkizu taldean, metalezko instrumentuak jotzen.

Asier eta Iñigo, Gozategi taldeko kideak, baina ez partaide orijinalak; bigarren Asier eta Iñigo baizik kar kar kar... Sarasola eta Perona, zein baino zein, bilatzen hasita nekez aurki daitezkeen bi harribitxi. Gazte zentzudunak, azkarrak, errazkeriak aparte lagata beren ideien defendatzaile konprometituak.

Musikak batu gaituen arren, niretzat bizitzan ezinbesteko bidailagun bilakatu dira. Orio, herria bera osotasunean maite dudan aldetik, harro nago bi oriotar hauek taldean sartzeko erabakia hartu izanaz.

Zer ematen dizute?

Babes handia. Lehen, arrebarekin ateratzen nintzen etxetik kontzertuetara. Gero, urte batzuetan, taldeko oriotar bakarra izan naiz. Orain, berriz, bi hauekin ekipa ona egiten dut. Hamarkada ezberdinetako hiru gazte gara! kar kar kar

Eta teknikoki?

Oholtzara igotzen naizen bakoitzean, beraiengandik zerbait berria ikasten dut, musikari hobea izaten laguntzen didate.

Uzten al diezu kantuen sorkuntzan parte hartzen?

Bai bai, kantuak berenak ere badirela sentiarazten saiatzen naiz. Disko berrian beraiek grabatu dituzte haizeak. Ainhoa arrebak ere parte hartu du, dozena erdi bat abestitan panderoa sartuz, eta Julen Alonsok ere bai. Orain artean, nik grabatzen nituen trikitixaren bi ahotsak, eta abesti berrietan Julenek grabatu ditu bigarrenak. Zorazten nago hirurek estudioan egin duten lanarekin. Bestalde, kantu pare baten letrak Xabier Sukia eta Jon Sarasua oriotarrek eginak dira.

Zein da taldekideekin konpartitzen duzun une bereziena?

Kontzertura joateko juntatzen garen momentua. Irriparrarekin azaltzen gara denok, bakoitza Euskal Herriko punta ezberdin batetik. Elkartzean sentitzen dugun poza bada nahikoa arrazoi aurrera jarraitzeko.

Urte hauetan guztietan, zein izan dira zure musikari erreferenteak?

Kaxiano, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Anje Duhalde, Julen Lekuona...

Eta zer entzuten duzu kotxean gaur egun?

Musika brasildarra. Asier Sarasola Brasilen izan zen, eta musika bikaina ekarri zidan. Haustaileak dira, ahotsa eta bi esku kolpe nahikoa dituzte kantu ederrak osatzeko.

Jarraitzailearen batek esandako esaldiren bat baduzu gogoan?

Juan Mari Irigoien idazleak behin esan zidan: *Ez dakizue Euskal Herriarengatik zer egiten ari zareten...* Duela gutxi, beste batek: *Higatik nauk trikitilaria*.

Kritika
'Horma'


 Erein argitaletxea, 240 orri.
 Paperezkoa: 18 euro
 Digitala: 10,50 euro.

Horma

Anjel Lertxundiren *Horma* eleberriko protagonista nagusia memoriari edo memoria ezari hormatua bizi den gizasemea da. Orainari aurre egin ezinik, iraganera joko du, aspaldiko kontuen hautsak astindu nahian. Horretarako, Alzheimerraren atzamarretan oroimena galdua duen amari zuzentzen zaio, galdera ikurrez jositako mar-mar batean. Lortuko al du Fidelek galdera horien erantzuna? Argituko al ditu haurtzaroko gertakizun lauso haiek, tartean, galdutako arreba txikiaren paraderoa?

Denboraren beste muturrean Marta dugu, Fidelen neska-laguna. Itzultzaileari etorkizun sortzaileagoa opa nahi diola, sortze-lan originala idaztera bultzatu nahi du Fidel. Hau ataka batean dago, ez atzera ez aurrera. Lortuko al du Fidelek liburu original hori idaztea? Inkomunikazioaren paradigma diruditen bi harremanen artean balantzaka dabil Fidel. Baina pasarte malenkoniatsuen artean ez da umorerik falta. Hizkuntzaren joku zirtolari eta jostariak eskaintzen dizkigu Anjelek, bai pertsonaia nagusiaren eskutik –Fidel Itzultzaile Elkartera doaneko pasarte antologikoan–, bai bigarren mailako batzuen ahotik –Laurdenerdi, Zikinbrillo–.

Alabaina, harreman-trama honi piper eta gatza ematen dioten hausnarketak ere maisuki tartekatzen dira nobelan, hari nagusia itzulpengintza eta originaltasuna direlarik. Jonh Berger idazleak zioen bezala: *Memoriarik gabe ez dago gizakirik. Memoria funtsezko gaitasuna da idazteko, baina batez ere beharrezkoa dugu bizitzeko, eta bizirik gaudela sentitzeko.*

ANDER ETXEBESTE


Angel Lertxundi oriotarra bere azken lana eskuetan duela. EREIN.EUS



"Aiak lasaitasuna eskaintzen dit"

Ainitze Osa

Jauregi Taberna-Jatetxeko arduraduna

Aiako Udalak Jauregi Taberna-Jatetxea alokatzeko lehiaketa publikoa antolatu zuen iaz. Ainitze Osa 24 urteko zarauzarrak hartu zuen tabernaren kudeaketa eta oso pozik agertu da lehen urteko balantzearekin. Jatetxea ongi joan ez ezik, Aiak ematen dion lasaitasuna eta herrikoen gertutasuna nabarmentzen ditu.

Orain dela urte bete hartu zenuen jatetxearen ardura. Zer balantze egiten duzu?

Hasiera izan zen gogorrena. Ni ostalaritza munduan ibili naiz betidanik, barran edo zerbitzari, baina jatetxe bat hartzea ardura eta erantzukizun handiagoa dakar. Baina oso gustura nago.

Hainbat proiektu aurkeztu zitzaizkion Aiako Udalari, eta zurea aukeratu zuten. Pozik?

Bai, ez nuen espero. Aurkeztu nuen proiektuak adin desberdineko jendearentzat moldatutako zerbitzua hartzen zuen. Gazteentzat hanburgesak, plater konbinatuak... jatetxean 50 bat lagunentzat dugu lekua eta hor menu bereziak ere eskaintzen ditugu.

Zein balio erantsi eman diozue jatetxeari zure ustez?

Nire amak esku bat botatzen dit denean, eta egia esan bion artean, dugun terraza balioan jartzen saiatu gara. Familiak, turistak, bisitariak... guztiek hartzen dute gustura terrazan eguzkitan goxo goxo egotea.

Urte honetan zehar nabaritu duzu kanpoko jende gehiago etorri dela Aiara?

Bai, zalantzarik gabe, turista kopurua igotzen doa. Atzeritar dezente etortzen da jatetxera, Pagoetako Parke Naturalak eta herriak berak erakarrita; frantsesak, ingelesak, alemaniarrak... gero eta gehiago etortzen dira Aiara, baita Madrildik eta Kataluniatik. Hemengo lasaitasuna eta parajeak gustatzen zaizkie, baita eskaintzen zaien tratua ere.

Zarauzarrak zara izatez, baina Aian bizi zara orain. Nola-koa izan da aldaketa?

Aldaketa nabaria da. Nire lagunak Zarautzen ditut, baina hemen bizitzea izugarri gustatzen zait. Aian dagoen lasaitasuna ez da leku askotan ematen. Asteburuetan jatetxea betetzen da eta sekulako giroa izaten da plazan, pilotalekuan, eta inguruetan. Aste tartean eskertzen da lasaitasun pixka bat. Dena den, azpimarratu behar dut aste artean lasaitasun horretan gurera etortzeak badituela abantailak, menua eskaintzen dugu prezio onean, baita bestelako platerak ere. Oriotar eta aiarrei gurera etortze-ara animatzen diet.

Apirilak 23



Xabier Etxeberria

Aian eta Orion leudekeen idazle berriei gomendiotxo batzuk ematera ausartuko naiz: hasteko, zuen buruarengan sinistu

Apirilak 23a, Shakespearen eta Cervantesen urteurrenak aitzaki hartuta, Liburuaren Eguna da. Ekitaldi ugari antolatuko dira gurean ere hori ospatzeko eta, ahal den neurrian, irakurketa sustatzeko.

Irakurketaren aurretik idazketa dator ordea, eta horrela aritzeak lotsa ematen didan arren, liburu batzuk argitaratuak baditut eduki, eta herrian leudekeen idazle berriei gomendiotxo batzuk ematera ausartuko naiz:

- Hasteko, zure buruan sinistu. Edozein ekimen berri-tan benetako aldaketa, jauzi infinitoa, 0-tik 1-era igarotzea da. Norbaitek sortu duzun horretan sinesten badu, etorriko dira gehiago. Eta lehendabiziko hori, zu zeu izan behar zara.

- Kontuz konparaketekin. Pertsona bakarrarekin konparatu behar zara, zu zeu atzo zinenarekin. Hori da gainditu behar duzun pertsona, hobia bihurtzeko erreparatu behar diozuna.

- Baina, batez ere, ez utzi idazteari. Hobia onaren arerio da. Hasiera on perfektu baten zain ez egon, hasi, egin jauzi orrialde zuriaren erdira tranpolinetik, idatzi.

Apirilak 23a, Katalunian behintzat, Saint Jordi ere bada. Beti eman izan dit inbidia Liburu Eguna han nola bizi duten. Benetan herrikoia da festa hau katalanen artean, liburua eta larrosak oparitzearena oso zabaldua dago. Aurten larrosa gorriak eta horiak banatuko dituzte. Horia da berritasuna, *Aupa Orió* kolorea. Baina baita solidaritatearena preso politiko katalanekin. Aupa Oriol alegia...

Idazleoz gain, azkenaldian jende gehiagok ere Katalunia aldera inbidiaz begiratzen duela esango nuke... edo beldurrez da? Edo asperduraz mozarrotutako irribarre harroxko batez? Izan ere, ez esan ez denik harritzekoa: euskaldunak baretasuna eskatzen eta katalanak albistegi guztietan. Filma honetan paperak aldatu bagenitu bezala sentitzen dut batzutan, eta Kataluniara begiratzea, nolabait, izan ginenaren ispilura begiratzea dela.

- Baina... Norekin konparatu behar dugu? Kataluniarekin edo geure buruarekin? Iruditzen zait hasiera perfektu baten zain gaudela, eta ez dakit gure buruan sinesten ote dugun eta 0-tik 1-era igarotzea gure esku dagoela konturatzen al garen.

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Oroimenaren kutxa

Patxi Alkortaren globo horiak

Pernando Amezketarra ezaguna da oraingo euskaldun gehienontzat ere, nahiz eta XVIII. mendean jaioa izan. Fernando bertsolaria eta plazagizona izan zen, bere ateraldi umoretsuengatik, bizitasunagatik eta argitasunagatik zen famatua. Haren bitxikeriak eta ateraldi xebreak gureganaino iritsi dira belaunaldiz belaunaldi.

Pernandoren antzekoak Euskal Herrian asko izan dira, herriz herri beren ateraldiengatik jendearen oroimenean iltzatuta geratu direnak. Donostian ere izan zen bat, eta hari lotutako ateraldi xeble bat oraindik ere gogoan dute donostiar batzuek.

Donostiako Parte Zaharrean gertatu zen xeblekeria, 1955ean. Egun hartan idi-dema izan zen Trinitate Plazan. Handik gertu zegoen jatetxe baten jabeak honela agindu zion deman nagusitu ziren idien jabeari: *Irabazi duzuenez, gero etorri gure jatetxera zerbaiz hartzera nire kontura!* Handik gutxira, agertu da jatetxean itzain irabazlea semearekin. Honela esan zion jatetxeko nagusiak: *Baina nola zuek biok bakarrik, dema idiek irabazi dute-eta. Ea, ekarri haiek ere!*

Itzaina jatetxetik plazara joan, bi idiak hartu eta haiekin bueltatu zen jatetxera. Izugarri handiak omen ziren, justu-justu baina barruraino sartu ziren. Tabernariak kubo bana ardo eman zien edaten idiei. Iru Txulo jatetxea zen hura. Patxi Alkorta, haren jabea. Patxi oso gizon ezaguna zen Donostian, jende artean beti gustura ibili ohi zena, kalekoa, herrikoa. 1948an zabaldu zuen taberna, Puerto kalean, Portaletatik gertu. Jatetxe hartatik pasatu ziren Donostiara etorritako mundu mailako kirolari asko. Garagardoaren kaña txikia zerbitzatzea eta hari 'zurito' deitzea ere haren burutazioa omen da.



Patxi Alkorta, Irutxulo jatetxean, idiei edaten ematen. IÑAKI ANDRES

Kirolzale eta festazale amorratua zen Patxi, eta bi zaletasunak uztartzen saiatu zen leku askotan, bere hiritik hasita, Donostiatik. Patxi Alkortak asmatu zuen Atotxako futbol-zelaian Realak gola sartzen zuenean estadiotik kalera atera eta bi suziri botatzea zerura, golaren berri donostiar guztiei emateko. Zarata handiko suziriak botatzen zituen, berak esaten zuen bezala, itsasoan gertu zebiltzan arrantzaleek ere izan zezaten Atotxako golen berri.

Patxi zabaldu zuen txapeldunari buru gainean txapela jartzeko ohitura, txapeldun hitzari zentzu bete-betea emanez. Kirolari askoren burua estali zuten Alkortaren txapelek: Lasarteko krossa irabazi zuten askorena adibidez: Zatopeck, Abebe Bikila, Maiz... Joko Olinpiko batzuetara ere iritsi ziren haren txapelak. Mexikon arrazismoaren kontrako protesta egin zuten atleta beltzek zeramatzen txapelak Patxirenak ziren. Alkortaren txapela ezagunenak Urtain boxeolariari, borrokaldiaren ostean, Patxi berak buru gainean jartzen zizkionak izan ziren.

Haren ibilerek Oriora ere ekarri zuten Patxi. 1968ko abuztuaren 25ean herriko kaleetan ibili zen. Egun hartan Oxford-Orio estropada jokatu zen, arraun olinpikoko nazioarteko estropaden lehenengo edizioan. Alkortak kolore horiko globoak erregalatzen zizkien hurrei, arraunfestari herriaren kolorea emateko. Gerora, haren alaba bat, Maria Jesus, Oriora ezkondu zen, Inazio Andresekin.

Maije Alkorta eta Ignazio Andresen seme Iñakik ekarri digu gogora Parte Zaharreko jatetxean idiekin gertatutako pasadizo xeblea, haren aitona Patxi Alkortarena, Maria Jesus, Oriora ezkondu zen, Inazio Andresekin.

“Euskararen erabilera handitu nahi dugu babes sozial zabalarekin”

Arrate Illaro

Euskaraldiaren koordinatzailea



Arrate Illaro Etxebarria Getxokoa da, baina lau urte terdi darama Orion bizi-ten. Iazko maiatzetik Euskaraldia koordinatzen dabil buru-belarri.

JABIER ZABALETA

Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua da Arrate, eta bertsolaria ere bai. Bertso-eskolak eman izan ditu ikastoletan; baina ibilbide profesionala, batez ere, Euskaltzaleen Topagunean egin du, bertako langilea baita azken urteotan. Euskaraldiaz hitz egiteko juntatu gara berarekin.

Zu Orion bizi zara orain, baina zeharo bestelako errealitate soziolinguistiko batetik zatoz, Getxotik... ikuspuntu horretatik nola ikusten duzu euskararen egoera gure herrian?

Kanpotik ikusita, uste nuen Orion asko egiten zela euskara eta hala da, beste zenbait tokirekin konparatuta; baina gaztelaniaz ere asko egiten dute hemengo heldu euskaldunek, eta horrek harritu ninduen. Ez nuen espero. Uste dut Euskaraldia aukera ona izango dela heldu horiek aktibatzeke eta euskara gehiago egin dezaten bultzatzeko.

Bestalde, harritzen nau —harritu eta poztu, kasu

honetan— Orion gazteak direla euskarari gehien eusten diotenak, gehien egiten dutenak. Toki askotan gazteen erabilerarekin dute kezka eta hemen gazteak dira eredu. Ea lortzen dugun gazte horiek ere Euskaraldiaren bultzatzaile aktibo izatea.

Joan den udatik hona buru-belarri zabilta Euskaraldia koordinatzen. Zer moduzko martxa daramazu?

Intentsoa izaten ari da. Iazko martxoan hasi ginen honetan eta martxa bizi-bizian gabiltza; baina oso gustura gaude. Herrietan mugimendu handia sortu da Euskaraldiaren inguruan eta horrek hauspoa eman dio ekimenari. Oso erantzun ona jaso dugu. Herri asko eta asko ari dira izena ematen eta dagoeneko esan daiteke Euskal Herriko zazpi probintzietan egingo dela Euskaraldia eta eskualde guztiak daudela ondo ordezkaturak.

Zer da Euskaraldia eta zertan da diferente orain arte egin diren euskararen aldeko kanpainekin alderatuta?

Alde nagusia da Euskaraldia ez dela kanpaina bat. Euskaraldia ez da adierazteko *Begira, ni euskararen alde*

nago. Beste gauza bat da. Jendearen hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa praktikoa egin nahi dugu, euskaraz gehiago egitekoa.

11 egunetan egingo dugu ariketa sozial hori, azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute eta bi aukera izango dituzte: *Ahobizi* gisa izena eman, ala *Belarriprest* gisa. Ahobiziek, 11 egun horietan, euskaraz egingo diete beti euskara ulertzen dutenei. Belarriprestek, berriz, babesa emango diete ahobiziei, adieraziz *E, niri egin euskaraz lasai. Ulertzen dut eta nahi dut zuk niri euskaraz egitea*. Batzuek zein besteek txapa identifikatzaile bana eramango dute soinean. Ekimenaren helburua da egun horietan euskara gehiago erabiltzea eta, ahal bada, ondoren ere aldaketa horri eustea.

Uste dugu Euskalaldia egokia izango dela euskararen erabilera handitzeko, eta hori du helburu. Euskal Herri mailako ekimena planteatu bada, izan da aurretik hainbat herritan egin direlako horrelako esperientziak –Lasarte-Orian, Agurainen, Donostiako Egia auzoan...– eta emaitza ona izan dutelako. Egin den tokietan oso ondo funtzionatu du, horrelako ekimen zabal batek babes sozial handia ematen diolako euskararen erabileran aurreratu nahi duenari.

Azaroan hasiko da 11 egun euskaraz; baina aurrez lana dago, ezta?

Orain arteko esperientziek erakutsi digute denbora behar dela horrelako ekimen bat behar bezala antolatzeko: eragile-taldea sortu behar da, ekimena sozializatu behar da ahalik eta herritar gehienengana iristeko, jendearen izen-ematea antolatu behar da.... Bestalde, parte-hartzaileen prestakuntza ere inportantea da, hizkuntza ohiturak aldatzea ez delako erraza.

Ohar bat egin nahi dut izen-emateari begira: inportantea da herritarrek ondo ulertzea zer den ahobizia eta zer den belarripresta. Gurea bezalako herrietan arriskua dago jendeak pentsatzeko guztiak ahobizi izan behar dutela eta ez da horrela: ahobizi izatea ala belarriprest izatea ez dago lotuta gaitasunarekin. Euskaldun asko, akaso, erosoago sentituko da belarriprest paperean, ahobiziei babesa ematen; eta, kasu horretan, belarripresterako eman behar du izena, dudarik gabe.



“Euskaldun asko, akaso, erosoago sentituko da *belarriprest* paperean, *ahobiziei* babesa ematen; eta, kasu horretan, belarripresterako eman behar du izena, dudarik gabe.”

le apaindegia

MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Garbina Arregi

Moda eta osagarriak

Horako plaza, 5
635 716 263

jantziak gaitzak zabaldu!

ITZIAR

kirolak



Tel. 943 83 31 03

URAITZ

lurrindegia

jantzi osagarriak

Eusko Gudari, 3 Tel. 943 83 18 97

MENDIZABAL

ARROZTEGIA

Nerriko armarriak eta gertelak

943 831 175 Altxeri bidea
645 708 491 Beti-Aloi etxea
mend@arroztegi.net 20810 Aia-Orio

USKATZEGIA

PATXI OLIDEN

UKATZEGIA


Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Azaskun Estankoa

- Tabakoa
- Prentsa
- Eskola materiala
- Opariak

943 831 175 Altxeri bidea
645 708 491 Beti-Aloi etxea
mend@arroztegi.net 20810 Aia-Orio



ASADOR XIXARIO

Eusko Gudari Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

KOLON TXIKI

starizagis jantziak



Herriko Eparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



kutixi

kafetegia

GOSARI GOWAK

Arriaga 9, 20810 Orio
Tel. 943 13 13 17

Gabon

TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitarstekak

943 83 06 09

f Karela-Kirokdegia-Bpxport @KarelaBPK

Udararekin batera badator

UDA SASOIAN!

KARELA kiroldegia



943 89 44 28

ttipi



ttapa

943259695
ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko deskontua familia egarlen tartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 argine/jantziak



Zaragueta

Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX - 943 571 190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO



ELEKTRIZITEA

Ander Etxepae

943 831 774
800 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



ORIOKO IKASTOLA



“Fruta brotxetak eta madalenak egiten ikasi dugu”

LH1-eko ikasleak

Haurren interesetatik abiatuz, merendola osasuntsu bat antolatzea izan dugu proiektu LH1ean. HH 5eko lagunei antolatu diegu hiru talde-tan. Janari osasuntsuari buruz hitz egitera etorri zitzaigun Miren Albeniz dietista. Eta hari horri tiraka errezeta ezberdinak landu ditugu gelan eta sukaldari ere bihurtu gara. Sukaldari izatetik kazetari izatera pasa eta gelakide batzuei proiektuaren nondik norakoak aipatzeko eskatua.

Zer prestatu duzue merendolarako?

Jolasak eta janariak. Altxorraren bila, aulki jolasa, musika kaxa, estatuaren jolasa, bonba jolasa, bat, bi hiru... bizkotxoa, limoi- ura, txokolate batidoa, naranja zukua, ura, madalenak, kre-pak, katu mingainak, fruta brotxetak, olibak, palomitak...

Zein ardura eduki dituzue? Zein ardura gehiago egon dira gelan?

Garbitzaileak, harrera arduradunak, mahaia jartzekoak, zerbitzariak izan gara. Altxorraren bilako arduradunak,

aulki jolasekoak, bat, bi hiru jolaseko arduradunak, musika kaxakoak, eta musikaz arduratu direnak ere bertan egon dira. Jan ere egin genuen!

Norbaitek merendola prestatu nahi badu, zer izan behar du kontuan?

Bere janaria ekarri beharko du, janaria prestatu beharko du errezetei begiraturaz, norbaitek alergiarik duen, zein jolas gustatzen zaien, zein jaki gustatzen zaien ere galdetu beharko du. Mahaia prestatu eta dena garbitu beharko du.

Zer egin zaizue errazena eta zer zailena?

Jokuak prestatzea egin zaigu errazago. Zailena mahaia jartzea eta jasotzea izan da. Jokuak aurrera ateratzeko aginduak ematea ere ez da erraza!

Zer ikasi duzue?

Oso zaila dela merendola bat antolatzeari. Fruta brotxetak eta madalenak egiten ere ikasi dugu. Gramoak neur-tzen ere ikasi dugu eta katu mingainak zer diren ere bai.



Irati Vivas

Aisialdia, aukeran?

Ainbat dira eskolaz edota lanetik kanpo egin daitezkeen jarduerak.

Familiarekin, lagunekin, edota bakarrik. Mendira joan, zineman pelikula bat ikusi edota besterik gabe, arratsaldea laguneren artean igaro. Baina, ba al dago aukerarik Orion aisialdiaz gozatzeko?

Orio oso leku onean dago kokatuta: mendiz inguratuta, hondartza, ibaia... Baina honetaz gain, ez dago denbora librerako aukera handirik. Mendi buelta bat eman, hondartzan zerbait hartu zein futbol partidu bat disfrutatu futbol zelaian. Baina horretaz gain, zer?

Gaur egungo gazteok zerbait desberdina egitekotan, herritik irten behar dugu, eta hori, azken finean, herriarentzat galera bat dela uste dut. Ez dut galera ekonomikoa bakarrik aipatu nahi, baina gaur egungo egoeran, nire ustez, gazte askoren dirua beste herritan geratzen da. Gehienbat galera soziala dela uste dut, azken batean, beste herrietara joateko joera dagoenez herria hutsagoa geratzen delako. Beraz, aisialdia aukeran al dago?

Zerbait desberdina egiteko herritik irten behar da; galera bat da Oriorentzat.

Orioko Udalaren urteko kultur eskaintza, aztergai



Amorantek 2017ko maiatzean Orioko kultur etxeko areto nagusian eskainitako kontzertuan. KARKARA

Herri guztietako Udaleko kultur sailek hainbat ardura eta eginkizun izaten dituzte. Sail horren gain egoten da, esaterako, urteko kultur programazioa prestatzea eta koordinatzea, edota herriko eskaintza kulturala programatzea eta zabaltzea, udalerrri bakoitzeko kultur taldeekin elkarlanean.

Departamentu horren betebeharra izan ohi da, era berean, urtean zehar egiten diren kultur ekitaldien programazioa prestatzea eta berau ustiatzea.

Urtean zehar Orion antolatzen diren ekintzen kudeaketa eta koordinazio lanak Udaleko Kultur sailari dagozkio: ikuskizun eszeni-

koak –antzerkia, dantza, musika emanaldiak...– kontzertuak, haur ikuskizunak, erakusketak, jaietako programazioa...

Askotariko jarduerak antolatze-ko eta kudeatzeko Orioko Udalaren aurrekontuetan kultur arloan lanean diharduten norbanakoei eta eragileei partida desberdinak jasotzen dira: administrazio orokorra, liburutegia, kultur etxea, museoak, kultur programazioa, jaietako egitaraua, kultur taldeei diru-laguntzak, euskalgintzako elkarteei, kultura eta euskara sustatzeko kanpainak eta publizitate ekintzak, e.a.

Kultur agenda hizpide

Lagin modura, Orioko kultur etxetik azken hiru urteetan antolatu diren ekintzetan erreparatuz gero, egin den jarduera kopurua aldatzen joan da: 2016.urtean 26 ekitaldi antolatu ziren, 2017an 30 inguru eta 2018 urtea hasi zenetik denera 9 kultur ekintza egin dira. Udala osatzen duten alderdi politikoek -PSE-EEk ezik, ez du parte hartu ale honetako *Udalaren Txokoa* atalean- herrian urtean zehar egiten diren kultur ekitaldi kopuruaren eta berauen kalitatearen bueltan hausnarketa egin dute oraingoan. Horra diotena:



EAJ Eskaintza zabala

Oriok kultur eskaintza zabala du. Gauza gehiago egin nahiko genituzke, baina ditugun baliabideen arabera programatzen da. Urteko agenda kulturala begiratzuz, adin ezberdinetako publikoari zuzendutako eskaintza zabala dagola ikus dezakegu. Erakusketak ia hilabetero ditugu Kultur Etxean, bideoforumak, antzerkiak eta kontzertuak.

Udaleko ekimenez gain, elkarte sare zabal eta aktiboa dugu eta ekimen ugari antolatzen dituzte hauek. Elkarrekin lanean jarraituko du Udalak. Urte sasoi berezietan eskaintza zabalteko ekimenak bultzatzen dira. Horrela, Jazzaldiaren kontzertuak, hondartzako musika taldeen emanaldiak, Motxila 21, umeentzako ekitaldiak, Organo, abesbatza edo Gospel kontzertuak eta beste hainbat ekitaldi izaten ditugu.

Orain, 'Ostiralak jai' programa errekuiperatzearen aukera azterten gabiltza, gustatuko litzaiguke aurrera ateratzea.

Orion badago zer egin eta zer ikusia. Erronka nagusia, ekitaldi hauetan guztietan herritarren parte hartzea indartzea da.



Orain Martxa onetik desmartxara

2011-2015 legealdian kultura ekitaldiei nabarmeneko bultzada eman zitzaien. Horrela izan zen eta horrela adierazten zuten herritarrek kaleetan.

Badira urteroko ekitaldiak, finkatuak daudenak eta modulatu daitezkeenak: ondo-gaizki antolatu edo txiki-handi egin. Aurreko legealdian "ostiraleko ekitaldia" finkatu zen, ostiraletan beti zegoen zer edo zer eta horrekin kontaktzen genuen.

Gainera Kultur Etxea zuen tokia, kalitatezkoak ziren eta hizkuntza ikuspegitik ere zainduak. Legealdi honetan gutxikagutxika gutxira-oso gutxira heldu gara.

Noizbehinka izaten dugu, kalitatea eta hizkuntza aldetik ez dago erreparorik baina maiztasunean egiten du kale, erritmoa falta zaio. Pilak jarri eta abiada puntua hartu behar da berriro.

Gertatu denari Iparraldean horri desmartxa deitzen diote.



EH BILDU Kulturaz gozatzeko agenda bat

EH Bildun beti izan dugu oso argi Euskal Herriko ondare kulturala babestu, gorde eta sustatzea oso garrantzizkoa dela eta kultur agenda interesgarri batek onura handia dakarkiola herriari, oriotarrek kalitatezko aisialdiaz gozatzeko aukera izan dezaten, batetik, eta gurera jendea erakartzeko, bestetik. Musikari, bertsolari, artisauek, arotz... kultur sormenari lotutako kapital handia dugu herrian. Balioa eman beharko genioke beren lanari, eta lehentasunezko tokia eduki beharko lukete Orioko urteko agendan.

Aurreko agintaldian oso harrera ona izan zuten urtean zehar ostiraletan kultur etxean egiten ziren antzerki eta musika emanaldiek. Jende askoren artean gertutasun eta konplizitate handiko giroa sortzen zuten.

Arrazoi jakinik gabe, agintaldi honetan asko murriztu dira emanaldi horiek eta pena bat da-



PSE-EE Zenbaki honetan ezin izan du parte hartu

Landare Berezien 16. Azoka asteburu honetan Aiako Iturrarango lorategian

Apirilaren 28an eta 29an, larunbatean eta igandean, Iturrarango Lorategi Botanikoan, Landare Berezien 16. Azoka ospatuko da.

Aurtengoan 50 mintegik eman dute izena. Kontinente guztietako landareak ikusi eta, hala nahi izanez gero, salneurri paregabean erosteko aukera izango da asteburuan. Gurean landare ezezagunak badira ere, arazorik gabe lorategietan edo etxeko leihoetan zaindu daitezke. Azoka ingurune paregabe batean kokatzen da, Iturrarango Lorategi Botanikoan, landareak ezagutu nahi dituzten guztientzat interes handiko eremua, ezbairik gabe. Iturrarango azokan jan eta edaneko postuak izango dira eta bertan inguruko produktu desberdinak erosteko aukera izango da.

Nahi izanez gero, Lorategiko ibilbideetatik paseatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Hurrek jolasteko gune eder bat ere aurkituko dute.

Aparkalekuak eta autobus ordutegiak

Parkearen inguruan bi aparkaleku gune antolatuko dira: bat Aia herrian eta bestea Txurrukako aparkalekuan, Orio ondoan. Hauetatik etengabeko autobus zerbitzua egongo da azokara. Autobus ordutegia azoka gunera: aparkalekuetatik azoka gunera lehendabiziko autobusa 9:45tan aterako da, azkenekoa 17:00tan. Azoka gunetik aparkalekuetara azkena 18:15tan.



Kirola

"Oriotarra eta Realekoa naiz.

Une honetan munduko pertsona zoriontsuena naiz"



Oraindik lehenengo maila handia geratzen zait. Meritu guztia jokariena da. Oriotarra naiz, eta Realekoa. Gure afizioa horrela gozatzen ikustea... Zer gehiago eska dezaket? Munduko pertsona zoriontsuena naiz une honetan.

Adierazpen horiekin argi utzi zuen atzo Imanol Alguacil oriotarrak datorren denboraldian ez dela izango Realeko lehen taldearen entrenatzaile. Dena den, joan den apirilaren 21ean eskaini zuen prentsaurrekoan Atletiko Madrili 3-0 Anoretan irabazi ostean bizi izandakoa izugarria izan zela berretsi zuen.

Oriotarrak estreinaldi bikaina egin du Realaren aulkian. Hala islatzen dute emaitzek: txuri-urdinek ez dute golik jaso azken Alguacilen esanetara daudenetik.

Ingurumena

Hondakinen kanpaina Orion hil bukaeran eta maiatza hasieran

Hondakinen sistemaren inguruko sentsibilizazio kanpaina egingo da herrian. Zehazki, apirilaren 30ean eta maiatzaren 2, 3, 4, 5 eta 7an ingurumen hezitzaileak egongo dira Orioko edukiontzi inguruetan. Apirilaren 25ean jubilatuentzako tailerra eskainiko dute kultur etxean.

Hondakinak biltzeko sistema berria ezarri zenetik bi hilabete baino gehiago pasa dira dagoeneko. Gaiaren inguruan herritarrek dituzten kezka eta zalantzak argitzeko, herriz herriko sentsibilizazio kanpaina abiatu du Urola Kostako Udal Elkarteak.

Ekimen ezberdinak antolatu dituzte horretarako, besteak beste, kalez kaleko sentsibilizazioa, hitzaldi irekiak eta kolektibo edo hartzaile zehatzentzako tailerrak. Apirilaren 30ean eta maiatzaren 2, 3, 4, 5 eta 7an izango dira Orion ingurumen hezitzaileak, edukiontzi inguruetan. Apirilaren 25ean, aldiz, jubilatuentzako tailerra eskainiko dute Kultur etxean.

Aian abiatu zen sentsibilizazio kanpaina. Ingurumen hezitzaileen bisita izan zen joan den apirilaren 9an eta 10ean.



Lehenengo egunean kaskoan ibili ziren hezitzaileak; bigarrenean, berriz, Andatza, Santio Erreka, Etxetaballa, Laurgain, Urdaneta eta Elkano auzoetan.

Kultura

Gaur eta bihar, hilak 27 eta 28, Rocioko feria egingo da Orion

Rocioko feria antolatu du Arkupe elkarteak. Gaur, apirilak 27, abiatuko da azoka andaluziarra.

20:00etan Semblante Rociero taldea arituko da plazan eta, ondoren, kalejira egingo du herriko kaleetan barrena. Larunbatean, berriz, apirilaren 28an, hau izango da programa: 12:00etan Duende eta Gitanillas del alma taldeen emanaldia izango da plazan eta, ondoren, kalejira, Semblante Rociero taldeak girotuta. 17:00etan Zambra taldearen emanaldia izango da plazan eta, ondoren, Semblante Rocieroren kalejira. Arkupek 200 euroko saria emango dio jantzi onenari eta herritarrei eskatzen die beren argazkiak igotzeko Facebook eta Instagramera.

FERIA ROCIERA
APIRILAK 27-28

OSTIRALA 27
 10:00 Feriara hasiera "Semblante Rociero" taldeak girotuta eszenatokia, eta ondoren kalejira.

LARUNBATA 28
 12:00 "Duende" eta "Gitanillas del Alma" taldeen emanaldia eszenatokia. Ondoren kalejira "Semblante Rociero" taldeak girotuta.

LARUNBATA 28
 17:00 "Zambra" taldearen emanaldia eszenatokia. Ondoren kalejira "Semblante Rocieros" taldeak girotuta.

JANTZI HOBERENARENTZAT 200€-KO SARIA
 Igo argazkiak @arkupeorio

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

• Etxea alokagai Orio erdigunean, 4 logela ditu eta oso argitsua da. Epe mugaturako izango da. Tf: 647576763

• Bikote oriotarra alokatzeko etxe baten bila. Tf: 697933663

• Orioko Kalakari Taberna alokagai. Tf: 620118830

Salgai

• Duplex-a arrantzale kalean. 3 logela, 2 komun, terraza eta garaje txikia. Goiko solairura igotzeko eskailera batzuk ditu. 15 urteko etxebizitza.

395.000€ Tf: 648820190

• 140m2ko etxea lurrekin salgai, Oriotik 10 eta Aiatic 5 minutura. Etxeak 4 logela, 2 komun eta garajea ditu er, nolakoa, zein preziotan, kontaktua.

• Aiako aurtengo in-txaurrekin salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634410993

• Etxebizitza salgai Aiako Santio auzoan. 91m2, egongela zabal-a, 3 gela, 2 bainugela,

garajea eta 2 trasteleku. Erabili gabea, altzaririk gabea. 172,081,82€ Tf: 660455530 -Gorka-

Lan eskaera

• Mutil gaztea lan bila dabil adineko jendea zaintzeko. Orduka egin-go nuke lan. Erizaintza eta garbiketa ezagutza eta tituluak ditut. Tf: 603644555

• Rosa lan bila, etxetik kanpo helduen zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 663117579

• Ume zaintzan zein etxe-ko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544

• Lan bila nabil, etxe barnean eta kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gazteleraz, arabieraz, eta euskaraz zerbait dakit. Tf: 612488307

Hezkuntza

• Ingeleseko saioak Arratsaldetan uztailan

eta abuztuan. Bertako irakasle tituladunak. Taldean eta bakarka. Prezioak kontsultagai. Gareth: 627389285 edo garethross@msn.com; Jenny: 697258509 (jensaross@yahoo.com)

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	6:10 eta 18:26	12:11 eta ____	○
02	6:45 eta 19:00	0:29 eta 12:45	○
03	7:19 eta 19:34	1:06 eta 13:20	○
04	7:55 eta 20:10	1:43 eta 13:57	○
05	8:34 eta 20:51	2:24 eta 14:37	○
06	9:19 eta 21:40	3:09 eta 15:24	○
07	10:17 eta 22:43	4:03 eta 16:22	○
08	11:31 eta 23:58	5:09 eta 17:32	○
09	12:49 eta ____	6:21 eta 18:45	○
10	01:11 eta 13:53	7:26 eta 19:48	○
11	2:10 eta 14:43	8:20 eta 20:39	○
12	2:58 eta 15:25	9:06 eta 21:24	○
13	3:41 eta 16:05	9:47 eta 22:05	○
14	4:21 eta 16:44	10:28 eta 22:47	○
15	5:02 eta 17:23	11:08 eta 23:28	○
16	5:44 eta 18:04	11:49 eta ____	○
17	6:27 eta 18:47	0:12 eta 12:32	○
18	7:13 eta 19:33	0:57 eta 13:17	○
19	8:02 eta 20:24	1:46 eta 14:06	○
20	8:58 eta 21:22	2:40 eta 15:01	○
21	10:03 eta 22:30	3:41 eta 16:04	○
22	11:18 eta 23:46	4:50 eta 17:15	○
23	12:37 eta ____	6:06 eta 18:32	○
24	1:03 eta 13:48	7:18 eta 19:42	○
25	2:10 eta 14:46	8:20 eta 20:42	○
26	3:06 eta 15:35	9:12 eta 21:32	○
27	3:53 eta 16:17	9:55 eta 22:15	○
28	4:35 eta 16:54	10:34 eta 22:54	○
29	5:13 eta 17:29	11:10 eta 23:32	○
30	5:48 eta 18:03	11:45 eta ____	○

ZAINZAKO BOTIKAK

MAIATZA:

- 1ean, Iriarte
- 2an, Iturria
- 3an, Etxeberria
- 4an, Gallo
- 5ean eta 6an, Iriarte
- 7an, Larrañaga
- 8an, Iturria
- 9an, Izpizua
- 10ean, Gallo
- 11ean, Gaminde
- 12an eta 13an, Zulaika
- 14an, Iturria
- 15ean, Esparza
- 16an, Gallo
- 17an, Gaminde
- 18an, Zulaika
- 19an eta 20an, Izpizua
- 21etik 25era, Lasas
- 26an eta 27an, Esparza
- 28an, Gallo
- 29an, Lasas
- 30ean, Zulaika
- 31ean, Iriarte

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

KOMIKIA



Orio

'Feria Rociera'

• Apirilaren 27an eta 28an, andaluziar azoka horren bigarren edizioa egingo da Orion.

Pagoetako Mendi Lasterketa

• Apirilaren 29an, Aiako parke naturalean mendi lasterketa, 09:30etik aurrera.

Hitzaldia

• Maiatzaren 2an 'Osasunaren entzumenaren' hitzaldia Kultur Etxean.

Afaria

• Maiatzaren 5ean, 1978.urtean jaiotako *Kintada* afaria.

Artisau Azoka

• Maiatzaren 6an Artisau Azoka egingo da Orioko Plazan, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte.

Ipuin kontalaria

• Maiatzaren 14an haurrentzat ipuin kontalaria, 18:00etan Kultur Etxean.

Musika

- Maiatzaren 7tik 11ra, tailerreko entzualdiak Orioko Musika Eskolan.
- Maiatzaren 12an 'Danbolin Fest' ekitaldia, egun guztian zehar, herriko plazan.
- Maiatzaren 18an, gaueko 22:00etan, Xabier Lizaso piano-jolearen kontzertua Kultur Etxeko areto nagusian.

Psikologia

• Maiatzaren 18an, 19 eta 20ko asteburuan egingo den 'Tailer Esperientziala' ikastaroaren aurkezpen ekitaldia, Salatxo Aretoan, 19:00etan.

Zinea

• Maiatzaren 25ean Talaimendi elkarteak antolatuta, mendiari buruzko film emanaldia, Kultur Etxeko areto nagusian.

Bingoa

• Asteazkenero, Zaharren Babesleukoak Bingoan jardungo dira kultur etxeko areto nagusian, 16:30 eta 18:30 bitartean.

Aia

Iturrarango Landare Azoka

• Apirilaren 28an eta 29an, Iturrarango Landare Berezien 16. Azoka, Iturrarango Jardin Botanikoan.

Pagoetako Mendi Lasterketa'

• Apirilaren 29an, Aiako parke naturalean mendi lasterketa, 09:30etik aurrera.

Kimu haurreskola

• Maiatzaren 9an, Aiako Kimu haurreskolak ate irekia antolatu du, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Erromeria Andatza Auzoan

• Apirilaren 29an, eta maiatzaren 1ean 6an, 13an eta 27an, 18:30etik aurrera, Aristerrazun.

Podologia

• Maiatzaren 26an podologoarekin kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 13 11 44

HERRIKO KONTUAK: HAUTESKUNDEAK
IRITZIA: ZIGOR ETXANIZ / AIA: KAREA ETA KAROBIAK

Orioko eta Aiako aldizkaria / 2003/04/25

145

KARKARA



Oteiza hil da